



# itsasoaren hotsak

Jose Mari  
Zendoia Sainz



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

JOSE MARI ZENDOIA SAINZ

# itsasoaren hotsak

Liburuxka honetan 2006 eta 2010 artean idatzitako hainbat olerki eta prosazko testu batzuk aurkezten ditut. Bildumari “Itsasoaren hotsak” izena jarri diot, eta lan guztia zeharkatzen duen haria itsasoaren ideia da, berezkoa ala metaforikoa.

Aipatu haria jarraitzeko, zenbaitetan aurkezpen testuak agertzen dira ere.

Nik egindako argazkiak liburuaren osagarri dira.

# AURKIBIDEA

ZURRUNBILOA

BERRIRO

IRUDIAK

HITZERAINOKO BIDAIA

ARRATSALDEKO FAROA

NEKATURIK

HAUSKORRAK

EDUKIA

EGUN ARGITSU ETA GOIBELN OROITZAPENA

HUTSUNEA

WILAYA DAKHLA

ZORTE ONEKO IZARRA

ERREALITATEA

HITZEN ESPIRALAK

HONELA ERORIKO GARA

ITSASORA BERRIRO

ORAIN

ZERTARAKO BILATU

GAUAK

ETORBIDEA

BOTILAKO MEZUA

ONTZIAREN ARRASTOA, UHARA

NAHI IZANGO NUKEENA

Itsasoetako korronteeek eramango gaituzte datozen lerroetan, batzuetan noraezean,  
besteetan lur muturren aurka, agian ur sakonetara.  
Igaro dezagun atea eta egin dezagun jauzi itsasoko zurrunbiloetara.



## ZURRUNBILOA

Irudiak datozkit burura,  
itsasadar urdinaren gainean,  
antxetak garrasika bezala.  
Urduri, multzoka batzuetan,  
besteetan banaka,  
arroketatik zelaietara datozkit  
ideiak garrasika.  
Inguratzen dute nire burua,  
gora eta behera dabilta  
oihu karrankariez lagunduta,  
zurrunbiloan alde egiteko gero  
itsas aldera, olatuen gainetik  
antxetak, irudiak  
nire ibaiaren bokalean  
desagertuz garrasika.



## BERRIRO


Berriro harriak udaberrirako joanean,  
haitz beltzen aroa.  
Elurra urtu zen bakardadearen garaian,  
elur zuria.  
Hodeiek estali zuten sumendiaren tontorra,  
nik eguzkiaren epela jasotzen nuela  
biluzik eta bakarrik.  
Gaua iritsita, ordea, amodio ezkutuarekin jolasean  
topatu nuen nire burua, nire gorputza,  
belaunaldien arteko harreman isilean.  
Harri beltzeko eremu mortuan  
haize umeleko bolada iheskorrean  
elur urtuaren magalean  
itsaso beltzaren gainean  
irudizko hutsunea itxuraz estaltzen  
orain arte, negua berriz iritsi arte,  
harri beltzeko hondartzak beste behin  
zapaldu arte  
eguzkiaren epela osterara jaso arte  
apar zuriaren bakardadea irensten, berriro.




## IRUDIAK

Itsas ertzetik oinez noa  
olatuen indarra, haizearen patxada:  
ezinegona.

Ez dago inon, ez da ezer  
baina gurekin dator denbora  
etenik gabe.





## HITZERAINOKO BIDAIA

Itsasoko hondo ilunetan  
sortzen da, alga eta bakterien artean, nire bizitza  
eta, isilean, igoera geldo batean  
iristen da aldizkako izpietara,  
esparru goreneko  
bat-bateko argialdi distiratsuetara.  
Harmonian limurtzen dut gorputza  
ur gardenen artean,  
kolore, inguru, epeltasun  
zuri-urdinen nahasketan.  
Horrela, arrain abisal baten antzera  
hegalak hankekin ordeztuz, ibilera nagian  
arroka eta hondarretara irteten naiz;  
lurra, airea, eguzkia,  
erronka diren oztopoak,  
eta nire aurreko bizitzan ezezagunak ziren  
gutizi berriak bilatzen ditut;  
nire zorioneko ibilbide zalantzazkoan  
unibertso berriek  
–areriozko zein zoragarriek–  
beren baitan hartzen naute.  
Bildu, ni naizen izate izan gabeko honetatik aldendu, itzuli  
eta eraldatzen naiz aldatu gabe itsaso-hondoa,  
arrastaka igo ninduen korrontea,  
gaineke aldaketa eta bilakaera aldakorra.  
Gorputza eta bizitza berregin, orno eta hezurdura luzatu,  
pentsatu eta sentitzen dut –ze plazera pentsatu eta sentitzea–,  
eta zure mundua igartzen dut, bertatik so egiten diezula  
bere hondoa sortu ninduen itsasoko olatuei, eta azkenik  
zuregana heltzeko modua aurkitzen dut: hitza.  
Orain zure erresumako biztanlea naiz.

Eta argitsua bada, iluna ere, itsasoa... eta horregatik jartzen dizkiogu faroak, gidatu gaitzaten, jakin dezagun non gauden eta nora goazen. Badauzkagu faroak hemen, portura eramaten gaituzten faroak.



## ARRATSALDEKO FAROA

Farora iritsi gara berriz, gure farora.  
Baina itxuraldatuta dago, bere bakardadean zahartuta.  
Gogoratzen, garai zaharretan, bertara hurbildu  
eta ontzien sirenak entzuten genituenean?  
Gau osoa argiaren etengabeko joan-etorria zelatan,  
zorabiatzen ginenean?  
Gaurkoan, egun argiz itzuli gara bertara  
eguzkia sartaldean amiltzen denean,  
eta ez dugu zereginik,  
ez dugu zer esanik,  
iluntzen duenean ez dugulako  
ontzien zaratarik entzungo,  
gauaren isiltasunean ez garelako  
gehiago zorabiatuko,  
garai zaharren zirrara agortu delako.  
Itsasoak ez du gure argi ibiltariaren beharrik  
eta gu, ezinbestean, ontziak bezala,  
laguntzarik gabe geratu gara  
portu berrietara arriskurik gabe hurbiltzeko.

Badugu nahiko lan ez bagara geratzen harrapaturik, nekeak jota, itsas beherak uzten dituen putzuetako batean! Agian orduan beldurrak harrapatuko gaitu. Beldurrari ezin zaio uko egin, gehienera ere eskutik heldu, eta gurekin eraman.



## NEKATURIK


Zur ederreko altzarien kolore ilunaren ordez  
plastikozko apaletako gris itzaliak  
betetzen ditu egongelako paretak,  
zuhaitzetako hosto zabalaren artetik  
txolarreen txioak entzun ordez  
itsas ontzien eta trenen zarata datorkit,  
eta droga izugarrien eraginpean egongo banintz bezala  
beldur irrazionala jasaten hasten naiz,  
ulertezina eta arrotza, erotasunetik gertukoa,  
ingurukoengan sumatzen ez dudana erotasuna,  
urruna eta sakona, beldurretik gertukoa,  
garai zahar eta ahaztuak biziberritzen dizkidana.  
Baina zuretzako prestatu behar nuen abestia  
eskuetatik joaten ari zait oraintxe,  
eskaini nahi nizun olerkiaren lerroak  
leihoaren zirrikituetatik ihesi doaz,  
eta berriro nire onera etortzen saiatzen naiz,  
alperrik eta nekaturik,  
agortuta abuztuko galsoroen antzera,  
itxaropenik gabe eta unaturik,  
itsasbeherak arroketan utzitako  
putzu gazi eta beroen modura.



## HAUSKORRAK

Nire laguntza nahikoa ez denean  
ezin zaitut erortzen ikusi.  
Zure gaztelua erortzen hasten denean  
ezin naiz bertara sartu.  
Bidelagunak topatzea zaila delako  
ahaleginak egin behar ditugu  
aurreiritziak bide bazterrean uzten.  
Harri txingor batek ez dezala, arren,  
airean arinki eskegita dagoen eta  
balantzaka jarraitzen dugun  
ibilbide hau oztopa.  
Hauskorra baita dena inguruan,  
hauskorrak loreak, hauskorrak harriak,  
gu bezain ahulak zuhaitzak,  
gu bezain arinak hodeiak.  
Hartu harri txingorra eta gazteluko horma osatu,  
hartu zuhaitzen enborrak eta geletako sabaiak indartu,  
hartu loreak, maitea, eta etxe osoa apaindu  
hodeien arintasunak zerua estaltzerik ez baitu.

Honakoa joko bat da, non gauza bakoitza bere lekura itzultzen den,  
olatuek atzera jotzen duten moduan.



## EDUKIA

Hartu dut metalezko pote txikia mahai gainetik. Ireki dut. Hezetasunak hartu du barruko tabakoa, eta hainbeste denbora igarota, usteltzen hasia da. Kiratsa dario. Sudurra potetik urrundu eta berehala itxi dut.

Hartu dut liburua apaletik. Ireki dut. Orri batzuk erori zaizkio: liburuen udazkena. Lizunak hartu ditu lotuta geratzen diren gainerako orri gehienak, eta letrak desagertu dira. Ezin da ezer irakurri. Azala itxi eta berehala utzi dut berriro liburua apalean.

Hartu dut ardo botila sukaldetik. Ireki dut. Edalontzian ardoa isurtzen hasi orduko ikusi dut galduta dagoela, ozpinduta, gardena desagertuta... Ardoa arraskatik behera bota, eta botila zakarrontzira eraman dut.

Hartu dut zure eskutitza postontzitik. Ez dut ireki. Bego bere edukia nire gogoan usteldu, lizundu, ozpindu gabe. Balio izango al du iruzurrak? Badaezpada, postontzian sartu dut berriro zure eskutitza.

Itsasoa lur eremu zabaletan topatu izan dugu, hala nola tarterik huts eta ahaztuenetan. Iragana ere zabaltzen zaigu aurrean aintzira ilun bat bezala, eta etorkizuna, misterioz betetako ibaia bezala. Eta oraina, eskuetatik ihes egiten digun hondarra bezala.



## EGUN ARGITSU ETA GOIBELN OROITZAPENA

Gogoan dut, eguzkiaren beroak  
kristalaren bestaldetik kiskaltzen nauen honetan,  
gogoan dut, uda hasten ari den egunean,  
beste uda hartako oporraldi hura,  
zu gabe, zu gabe egiten nuen lehena,  
modu hartan gehiago ezin egon eta  
zureganako beharrak telefonoz deitzera behartu ninduen.  
Zure ahotsa bestaldean, maitasun izpi bat eskainiz,  
irribarre soil bat harian luzatuz,  
hura zoriona.

Galdetu zenidan egun haietako sargoriari buruz,  
jakin nahi izan zenuen nitaz, nire bakardadeaz,  
egun argitsu baina goibel haien tristura uxatuz.  
Baina banekien itzuleran ez zinela nirekin izango,  
zoriontasuna unean unekoa dela, eta ez betirakoa,  
telefonoa eskegita egun argitsu baina goibel hartan  
jarraituko nuela orduak igarotzen,  
lur muturreko harkaitzak bezala, geldirik.

Banekien ere,  
itsasoaren korranteetan lanpernak arrokara bezala,  
horrela geratua nintzela ni, zuri lotuta,  
bizipen arruntek, orain hara orain hona, ninderamatela.



## HUTSUNEA

Isilik egon zaitez, isilean, malkoak irtengo zaizkit zure ahotsa entzutean.

Mutu geratu, arren, beldurrak ezin baitu zure hitza jasan.

Aditzik gabeko esaldiak, doinurik gabeko soinuak.

Atxiki nazazu zure isiltasunean, lotu zure hutsunean, heldu zure gabezian.

Isilik egon, irudimenak zure hitzak sor ditzan.

Mutu geratu, nire baitan zure esaldiak amesteko.

Aska nazazu zuri lotuta geratzeko.

Beldurrak ezin baitu zure hutsa jasan.

Hitzek ezin baitute zure eza bete.

Irudimenak ezin baititu zure hitzak sortu.

Esaldiak ez baitira ezer aditzik gabe.

Ni ez bainaiz zu gabe.

Ni... zu... gabe.

Itsasoen artean itsasoena, baina itsasoetako uretatik urrun, Saharako basamortua. Gaueko zeru beltza izarrez josia, eta eguneko hondarra, haizea, eguzkia, beste mundu batean egotearen konstatazioa, eta halere, etxean bezala izatearen pertzepzioa.



## WILAYA DAKHLA

Dena hasi zen Dakhlatik atera baino lehen, bezperan, Clubeko atarian eserita nintzela ilunabarra begira. Hautsa sartu zitzaidan sudurrean, eztarrian, begietan, eta ezin izan nion eutsi marrantari. Paralisi moduko batek giharrak gogortu zizkidan, eta han geratu nintzen, lurrian botata, belauak minduta arrastaka ibilitako oinetakoen gainean.

Gau ilunak ez zuen ezer konpondu, izarrek eskura eduki izan nituen arren.

Biharamunean, hondarrezko adreilu ilara tartekatuaren irudiak eztanda arazi zuen zeru zabala. Bakar bakarrik egon nintzen une batez, jendez inguraturik izan arren. Dena bilduta zegoen han, nire hamabost urtetako ezjakintasuna, nire gaztaroko xalotasuna, bide erdian edo bide ertzean galdutako amodioak, heldu garaiko heldutasuna, nire amaigabeko pazientzia eta gauza txikiekin liluratzeko gaitasuna. Bizitza berriro ere bizi izan nuen, presaka, jakin bainekien horrelako une xarmagarriak errepikatzeko aukera agortu dela. Zoritxarrez.

Gero etorri ziren agurrak, eta Lekheilaren negar zotinak, eta Mamaduren besarkadak, eta umeez antzematen zuten etorkizun zapuztua. Eta ondoren, ezer eza, hutsa, zeru eta lur guztiak garbi garbiak, hodeirik ez, belarrik ez, biderik ere ez handik alde egiteko, argia soilik, hondarrezko itsasoa, eta nire malkoak.

Ezin nuen jasan jende hura ezer ezaren erdian abandonatzea, baina inozoa ni, haiek dira ni abandonatu nautenak guzti honen erdian.



## ZORTE ONEKO IZARRA

Zorte oneko izarrak  
gidatzen nau, antza,  
eta ni konturatu ez.

Lasaitasun osoa  
nire barnean, ustez,  
gauetz eta egunez.



Ez dakit ondo zergatik, ez dut gogoratzen non edo noiz idatzi nuen, baina ondoko olerkia berrirakurtzerakoan kresala usaina datorkit gogora.



## ERREALITATEA

Erabilitako pospolo bat hautsontzian,  
eta zigarroaren hondarrak,  
kearen azken zirimolak  
leihotik sartzen den haizearen baitan.  
Norbait egon da hemen duela gutxi,  
irratian ahots batek  
atzerriko hizkuntza batean dihardu,  
euli bat bidai txiki bat egitera ausartzen da  
sukaldetik korridorera,  
bizilagunaren pausuak entzuten dira  
portaleko eskaileretan behera  
bere etxeko atea giltzatu ondoren,  
errealitatea horrelakoa da,  
bakartia, soinu arrotzez betea  
eta ahots ezagunetan eskasa,  
haize korronteez desitxuratua,  
bazkal ondoko ordu lasaietan.

Noizbehinka idazteari buruzko hausnarketa egiten dut, batez ere idazteko inspiraziorik ez dudanean. Eta ustekabean, lerroak beren kabuz orria marrazten hasten dira, eta konturatzerako orriaren zuria irudiz beteta dago, hitzek sortutako irudi ulertezinez beteta.



## HITZEN ESPIRALAK

Ezintasuna adierazten duten lerroak errepikatzea ergelkeria da, ezintasuna ez baita konpontzen lerro antzuekin. Baina askotan besterik ez da geratzen, ezintasunaren konponezina azalertzeko. Ba al dago beste egiterik?

Cognac on bat kristalezko kopa ederrean, garratasun denak bere horretan jarraitzen duela usain gozoaz dastatzeko. Hozkirriaren aurka ibiltzea, artilezko txanoa jantzita, gorputzak sufritzen duen bitartean burua epel mantentzeko. Jendeari begiratu kalean, kontent egoteko aukera zein gaizki banatua dagoen ondo ikusteko.

Hitzak idatzi, haiek zer edo zer ebatziko dutelakoan, eragiketa matematikoez zenbakizko problemak ebazten dituzten bezala. Hitz multzo bat, orden egokian jarrita, soluzio bila. Hitz ederrak, edo itsusiak, haien osotasunak askatuko gaituen esperoan. Esaldi borobilak, edo eliptikoak, edo laukizuzenak, amaigabeko espiralak biran ipintzea: hori da idaztea.


Baina ezintasuna adierazten duten lerroak errepikatzea ergelkeria da. Zeroen aurretik zeroak idaztea bezain hutsa, zeroen ondoren zeroak idaztea bezain inozoa.



## HONELA ERORIKO GARA

Mundu honetako dukesa guztiek askatasuna oparituko digute noizbait  
eta ez dugu jakingo zer egin,  
utziko ditugu mahastiak  
eta hirira hurbilduko gara  
ezer gabe  
bizitza nola bizitzen den ibai gorrian ikasi genuelako,  
ez kalean, ez aldapetako etxeetan.  
Ezagutuko ditugun eginkizun berriak  
irabazitako askatasuna baino astunagoak dira,  
dukesaren espetxetik  
errespetuzko arau faltsuen kartzelara igaroko gara  
handiki ikusezinen legera,  
lurra lantzeko lanabesen ordez  
tresna berriak erabiltzera behartuta,  
jakintza zaharren babesik gabe  
ohitura berrietarako gogorik gabe  
aldapan behera eroriko gara  
eraikin erraldoien artean  
eta dukesak ezarritako lege gogorra,  
berak jakin gabe, gure nahietara aisa moldatzen genuela  
gogoratuko dugu.  
Mahastiak eta gezurrezko tenpluak utziko ditugu  
eta haiekin eroriko gara.

Irakurri ditudan libururik gustukoenen artean, bik izenburu hauek zuten: “Olatuak” batak, eta “Farorantz” besteak, Virginia Woolf-ek idatzitakoak biak ala biak. Olatuak farorantz, olatuak farorantz... itsasotik ezin alde egin, itsasora berriro: olatuak farorantz.



## ITSASORA BERRIRO

...lau egun ez dira asko  
itsasotik urrun egoteko  
eta halere, hondartzaren ertzetik ibili  
gauerdian,  
argi ahula kresalaren artean...

Lerro paraleloak dira,  
zuriak itsaso beltzaren aurka,  
eratzen dira eta deseratzen  
hondarretara gerturatu ahala.  
Itsaso beltzenaren sakonean  
lehertu egiten dira  
burrumba ozen eta sakon batez,  
alderik alde hedatu  
eta azalera beltzaren gainean

gerturatzen dira,  
bata bestearen atzetik  
erritmo iraunkorrean,  
zipriztin arin batez hiltzeko  
hondarrak xurgatuta.  
Eta iruditzen zait ondoan dudala  
Virginia Woolf, olatuak deskribatzen:  
egunsentikoak, goizerdikoak,  
eguerdiko eta arratsekoak,  
eta hotzikara batek astintzen nau  
goitik behera.  
Eta iruditzen zait ondoan doala  
Alfonsina Storni, bere sonetoekin  
itsasora berriro.



## ORAIN

Aukera galtzen utzi zenuen  
eta orain, keinu uzkurrez  
bere txantxak gogoratzen dituzu,  
bere eskuak zure gorputzaren gainean,  
bere irribarre zabala  
eta bere algarak, zabalagoak  
gau alaien ostean,  
zure belarrietan entzuten dira  
orain, beste basoetan,  
iritsi ezin dituzun  
beste urbazterretan bilatzen ari dela  
susmatzen duzunean,  
orain, badakizunean zure denbora, berea,  
lertxun dardaratien hostoekin batera  
ur gainean geratu zela,  
eta hosto haiekin joan zela, horixka,  
zubian behera desagertu arte,  
zure bizitzari lapurtutako  
azken lasto lehorren artean.

Beti gabiltza gauza galduak bilatzen, itsaso zabalean paradisiko giltza aurkitu nahian-edo,  
hodeien artean zoriontasun izpiak harrapatu nahirik-edo.

Gehienetan ahaztu egiten dugu gertuago daukagula behar duguna, begiak itxita ia-ia nahi  
dugun hori eskura dezakegula.



## ZERTARAKO BILATU

Zertarako bilatu  
gogoaren baitan,  
bilatzen duzuna  
mila alkandoren azpian  
ezkutaturik balego bezala,  
nahi duzun hori aurkitzeko  
harribitxiak antzemateko gailua,  
iparrorratza eta mezu arakatzailleak  
beharko bazenitu bezala.

Zertarako bilatu  
anabasa horretan,  
trastez betetako ganbara ilunean,  
liburu zaharrek gainezka betetzen dituzten apaletan,  
aurrera so eginda  
begi erdi hertsiez  
antzeman badezakezu  
lasaitzen zaituen argitasun arina,  
sumatu ahal baduzu  
gidatzen zaituen ziurtasun epela,  
aurkitzerik baduzu  
lurrean egonkortzen zaituen oreka.



## GAUAK

Eta zer geratu da hartaz?  
Gau bat, ehunka,  
harrizko paretaren aurka bermatuta,  
aparra galdutako  
garagardo bat eskutan,  
barraren ertzean.  
Iluntasunean ezkutuka,  
alderik alde erdi galduta,  
bizitzari tunel bat irekiz  
egunerokotasunetik ihes egiteko,  
antolatu genuen beste mundu batera  
igarotzeko lurrazpiko bidea,  
ustez mundu egonkorra  
eta aldi berean lausoa,  
etenik gabe luzatutako inauteria.  
Eta zer geratu da hartaz?  
Oroimenaren zirrikitu batean  
gordetako aztarna txikerra,  
itsumandoka bildutako  
gau beltzen argi zurbila,  
arraunlari besamotzen antzeko  
mila ziabogen zorabioa.  
Ezer ez gehiago, agian,  
bide ertzean ikusitako  
gertaera guztien arrastoek  
utzitako lore ximelak.

Itsaso osoa nire gogoan, eta miraririk harrigarrienak ere nire baitan daude.



## ETORBIDEA

Nire arimara doan etorbidea  
hartzeko gogoa izan nuen,  
tarteka udaberriz jantzitako  
zumarren artean,  
tarteka zoruan zabaldutako  
zuloak saihestuz,  
eta hiribildura hurbildu nintzen horrela,  
harresi barruko gunera,  
nire aberri kutunera.  
Azokak zeharkatu nituen  
etxeetako atarietan zintzilikaturiko  
salgaien artean,  
auzune garaiak eta  
zabortegia ere ikusi nituen,  
harrizko eraikuntzetako enparantzak  
eta estolda irekiak.  
Han egon nintzen,  
paseatzen, bazter ezezagunak ezagutzen,  
begiratzen nuena gogoratu nahian,  
baina atzerako bidean,  
zumardi zulatuan  
nire arimatik datorren etorbidean  
oroimena galdu egin nuen.

Itsasoak lotzen ditu hango eta hemengo kostaldeak, itsas korronteeek eramaten dituzte hemengo zuhaitz adarrak munduaren beste aldera, eta handik mezuak ekartzen dizkigute, botiletan sartuak.



## BOTILAKO MEZUA

Neure kostaldera iritsi zinen  
itsasoa bare zegoen iraileko egun batean,  
beira marroi iluneko botila bezala,  
baina hitzez idatzitako mezurik gabea.  
Mezua zeu zinen, zeure gorputz osoa,  
zure atal bakoitza, begi beltzak,  
botila itsasoan gidatu zuen masta sendoa.  
Nik ahoratu nituen zure ondasunak  
zu laguntzearren,  
nik laztandu nituen zure lore muinak  
ongietorria emateko irrikaz,  
eta nire ahoan geratu da, nire eskuetan,  
botila husterakoan eskaini zenidan likorea.  
Ez zenidan hitzik esan,  
mezua zure baitan zetorren.



## ONTZIAREN ARRASTOA, UHARA

Bidaiari-ontzi handia,  
eta ni txopan,  
baranda zuriari ondo helduta  
itsasoari begira.  
Ontziaren azpitik gora datoz  
zurrunbiloak trumilka  
apar zuri fina etengabe mugituz,  
eta aparra itsasoko azalera geratzen da kulunkan  
ontziak aurrera jarraitzen du eta.  
Nabarmentzen da barkuak itsas irekian  
utzitako uhara luze zabala:  
itsasoaren amaiera eta zeruertzean desagertzen da;  
begiradak harrapatzen duen eremu osoan  
uraren kolore urdin iluna  
eta zeruaren urdin garbia.

Ez dakit nondik nora doan ontzia,  
ez dakit zein itsasotan,  
ez dakit zenbat denbora daramadan txopan  
barandari lotuta, begirada ur arrastoan galduta,  
bakarrik dakit ipar-ipar-ekialderantz doala barkua,  
eta ni bakarrik nagoela txopan beltzez jantzita,  
zeruan eguzkia astiro mugitzen delarik  
eta uretan ontzia.  
Motorren zarata ur azpiko makina gelatik  
barku osora hedatzen da poliki,  
ia entzunezina izan arte,  
haizeak fin jotzen du, hotza ari du,  
baina ez da nabari,  
ez da ezer nabari,  
ontziaren uhara itsasoan galtzen delarik.



## NAHI IZANGO NUKEENA

Aipatu ditut gauak eta egunak,  
aipatu zaitut zu, eta besteak,  
nire buruaz ere aritu naiz eta  
igaro dira hemendik hodeiak,  
loreak, ekaitz eta bareak,  
harri arinak eta argi sendoa,  
eta abeslarien hitzak bezala,  
poeten doinuen modura  
geratu da beti orriaren eremu zuria  
ezin bete, ezin osa, ezin bizi.  
Etorri zaizkit burura  
oroitzapen ederrak,  
begirada mingotsak,  
egoera ahaztuak,  
baina edalontzi hutsaren antzera  
ardoaren zain, horrela  
utzi ditut tarteak,  
ahora eramateko zukuaren itxaroan.  
Beste zerbait baitago nonbait,  
hona ekarri ez dudana,  
grina, mina agian, plazera,  
barruan eduki nahi izango nukeena.

## Epilogo



Hauek dira nire itsasoak, hauek nire hotsak.

Hauek izan dira honaino ekarri nauten ur korrontek.

Zuhaitz enbor bati helduta, olatuek naramate hondartzara.